

Aurkezpena

Ikasle berri bat gelan sartu da eta neska batengana hurbildu da:

(Xabier) —Kaixo, egun on!

(Lorea) —Aupa, egun on! Ikasle berria zara?

(Xabier) —Bai, ikasle berria naiz.

(Lorea) —Nola duzu izena?

(Xabier) —Xabier dut izena, baina “Xabiartxo” deitzen didate. Zu nor zara?

(Lorea) —Ba, ni Lorea naiz.

(Xabier) —Nongoa zara?

(Lorea) —Tuterakoa naiz, eta zu?

(Xabier) —Iruñekoa naiz.

(Lorea) —Zenbat urte dituzu?

(Xabier) —Bederatzi urte ditut, eta zuk?

(Lorea) —Nik zortzi urte ditut.

(Lorea) —Nik zortzi urte ditut.

(Xabier) —Futbola gustatzen zait eta baloia ekarri dut! Gero futbolean jokatuko dugu?

(Lorea)—Sentitzen dut. Futbola gustatzen zait, baina ikastetxean ezin da futbolean jokatu.